

Oldarra abesbatzaren uzta

Miarritzarrek disko berria osatu dute

Oldarra Miarritzeko gizon abesbatzak disko berria plazaratu du Warner disketxe ospetsuaren eskutik. Lehen aldikotz, neskato batek grabaketan parte hartu du. Mende erdi bateko lanaren emaitzak agertuko dituzte bost diskotan.

Lutxi Fourcade / Miarritze

OLDARRA gizon abesbatza jaun eta jabe da Miarritzen. Taldeak ematen dituen kontzertu guztiek izugarritzko arrakasta dute, eta 1.500 lagun bildu ziren bigarren diskoaren aurkezpenean, iragan azaroaren 11n, Miarritzeko Gare du Midi aretoan. Alabaina, sorterritik kanpo ere taldearen fama zabaltzen ari da. Izan ere, Warner argitaletxeak plazaratutako lehen diskoak fama handia eman dio Oldarra taldeari, eta azpimarratu du abesbatzaren mende erdi bateko lana.

Izan ere, Oldarra abesbatza sortu zen Miarritzen 1946an. «Taldeen izena zor diegu Miarritzeraz bizitzera etorri ziren errefuxiatuei», oroitu zuen Iñaki Urtizbereak, koruaren zuzendaria. Garai hartan euskal giroa nagusi zen Miarritzen, eta Oldarra taldea zen trukeak bultzatzeko zentro handi bat. «Dantza egitea edo txistua jotzea baino gehiago, Oldarra taldean sartzen zen euskalduna izateko», gaineratu zuen atzo zuzendariak berak.

Oldarra taldea osatzen zuten musikariek, dantzariak, kantariak eta «denok denetarik egiten genuen, ongi edo gaizki, baina garaiko filosofia zen», esan zuen abesbatzako zuzendari Inaki Urtizbereak berak.

Urteak joan, urteak jin, lan sakonagoa egiteko beharra agertu zen, eta talde ezberdinak sortu ziren 1960an: dantza taldea, abesbatza eta musikari taldea. Senideak Miarritzen zituelako, Juan Erasok hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza. «Nahiz eta andreen etsai ez izan, erabaki zuen gizon korua egitea, eta horrela sortu zen Oldarra gizon abesbatza», azpimarratu zuen Urtizbereak.

Benetako kontserbatorio bat • Hamabost urtez Juan Erasok kudeatu zuen taldea, eta «benetako kontserbatorio bat genuen Oldarran», azaldu zuen Iñaki Urtizbereak berak atzo Miarritzen. Egun guziz, Juan Eraso Iruñetik heldu zen Miarritzeraz, eta lan handia egin zuen abesbatzako gizonen bozak lantzeko. Erasok bere tokia utzi zuen 1972 urtean, eta geroztik Iñaki Urtizberea arduratzen da Oldarra abesbatzaz.

Disko anitz grabatu du Oldarra taldeak. Alabaina, benetako bihurtzea ezagutu zuen duela hiru urte. Izan ere, Warner argitaletxeak bilatu zuen euskal abesbatza disko baten grabatzeko. «Ez zuten koru misto bat grabatu nahi, eta gure formula gustatu zaie berehala», oroitu zuen lehendakariak.

Gizon korua izateaz gain, Oldarrak erreperitorio zabala zuen, Warner argitaldari multinazionalak nahi zuen bezala. Hain zuzen, XV. mendetik orain arteko elizako kantuak abesten ditu taldeak, eta baita *negro spirituals*, errusiar kantuak eta Mozart eta Poulenc konpositoreen lanak ere. Alabaina, Warner argitaletxeak ohiko kantuak baino ez zituen grabatu nahi lehen diskoan, eta proiektua berehala gustatu zaie Oldarra taldeko kideei.

Diskoa grabatu zuten Angeluko eliza batean, mikro batekin bakarrik. «Horrela, ez genituen bozak konpontzen ahal, eta funtsezko egia atera zen», azaldu zuen Urtizbereak. Izugarritzko arrakasta izan zuen diskoak, eta 80.000 ale saldu ziren duela hiru hilabete. «Warner disketxea ospetsua da munduan zehar, eta ahal handiak ditu ekoizpenak zabaltzeko. Xantza izugarria izan dugu, eta pozten gara ikusiz 50 urteko lanaren fruituak biltzen ditugula», Urtizberearen hitzetan.

Izenpetutako kontratuaren arabera, Oldarrak bost disko egin beharko ditu hamar urtez Warner taldearekin. Bigarren diskoa grabatu berri du, eta atera da azaroaren 20an. Hasierako filosofiari jarraituz, taldeak euskal kantuak grabatu ditu lan honetan, baina lehen aldikotz neskato baten boza sartu du. «Nahi genuen erakutsi nola hasi ginen kantatzen, haurrak ginelarik», azaldu zuen atzo Iñaki Urtizbereak.

Taldeak bilatzen zuen boza aurkitu zuen Sarlateko kantu eskolan, eta Alicia neska gazteak hamalau kantu grabatu ditu abesbatzarekin. Erreperitorioari dagokionez, Oldarra abesbatzaren kantu gehienak tradizionalak dira, baina gutxi zabaltzeko izan dira orain arte. Azkueren *Cancionero* liburutik atera ditu Urtizbereak, eta musika moldaketak egin ditu. X



Izenpetutako kontratuaren arabera, Oldarrak bost disko egin beharko ditu hamar urtez Warner argitaletxearekin.

Euskararentzat, XXI. mendea
hilaren 26an, arratsaldeko
17:30etan hasiko da.

natxo de benito
felipe lertxundi
label epeitaxabier
irrin zabal amuriza
gorka k... 800 kashbad
ixiar... t... erramun
preja... martikorena
skalari... kanje duhalde
andoni mikel exkixu
egana... laboa... estitxu
niko... betagami... arozena
etsart... jesu arzallus 100 gaitari
pailazoak pantxoa
2000 HAUR eta
KANTARI peto

konpromisoan elkarturik
Anoeta Agilera Mendizorrotza El Sadar San Mames

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN



KONTSEILUA

Egunkaria